

IDAZLEEN GORABEHERRAK CYMRU-N X LIBURU ETA DISKO AZOKA

Gure «Euskal Idazleen Elkarte» zoritxarrez aspaldi honetan lo-zorroan datzalarik ere, haren premia eta haren piztu-beharra nabarmen senditzen dugu euskaldun idazleok. Den-denon artean konponbiderik ez badago ere, sail batzutan bederen nabarmen senditzen dugu (eta areago egun hauetan) elkartu egin gintekeela gehienok, geure abotsa entzun ezazi behar genukeela, eta elkarganduz hasi.

Lumakideei doakie bereziki dei hau, hortaz, eta Elkarte haren azken Lehendakaria izan zen Torrealdairi areago.

Baina dei horrikin batera Cymru-ko (= Galesko) idazleei buruzko dato gogoangarri batzuk aipatuko ditut. (Ikus «The Welsh Writer and his Books», R. Gerallt Jones, 1973).

Aski da Cymru-ko demografia gogoratzea:

Cymru-ko jendaketa (1972)	2.700.000 lagun
«Kimri»-eraz mintzo (1961)	656.000 lagun

Cymru-ri buruzko gorabeherak guretzako argigarri izan daitezkeela konprenitzeko.

Ez hori bakarrik.

Jendaketa horren 3/4-ak (ia-ia bi miloi lagun) Hegoaldean pilaturik bizi dira, Caerdydd-eko (= Cardiff-eko) «hinterland»ean; bizi ongestutako miatz-eskualdeetan, beraz. Hustuaten ari diren lurraldeetan atxiki du kimri-erak, hitz batez, jendaketa haren baten ahotan; eta soziologi modernoan dutenetan, berriz (Newport, Cardiff, Swansea) galdutako ere; edo galtzen ari da bederen, eta azkar.

Gaur, dena dela, neure honetan, idazleei buruzko gorabeherak aipatuko ditut soilki.

Zertan dira Cymru-ko gure lankideak?

Ez dut galdera osoki erantzun ahalko, jakina. Baina dato interresgarri batzuk eman, bai.

1971an, 177 liburu argitaratu ziren Cymru-n, kimrieraz; eta 1972an, 203 liburu. Alde honetatik, hortaz, Gales-tarrak aurreruntz doaz argitaraketaren sailcan; baita, San Martinek eman ohi dituen datoen arabera irizitza, gure aurretik joan ere.

Kimrierazko eskolatan egiten den lana alferrik ez galtzekotan, eginahalak egiten dira gaur Cymru-n gazteentzako irakurgaiak prestatuz; eta 1971an, horretara, 46 liburu argitaratu ziren haurrentzako (argitaratzen % 26, hortaz).

Beste sail berezi bat ere badago Cymru-n: hizkuntza ikasten ari direnentzako liburu errazen saila. 1971ean, gomarazio baterako, hitz-geltzi mugatu bat baliatuz, 14 liburu argitaratu ziren «kimri-dun-berri-entzako».

Argitarataxeak larri ibili ohi dira ekonomiatan aldetik; kimrierazko liburugintzan galdutako baita dirua eskuarki («the market for Welsh books is not sufficient in strictly commercial terms»). Orain dela urte gutxi geroztik, laguntza txiki bat jasotzen hasi dira liburugileak gobernuaren aldetik: 10.000 esterlina 1972/1973an (bi miloi pezeta, gutxi gorabehera).

Zenbat liburu saldu ohi da? Gerallt Jones-ek dionez hau izaten da liburuaren salmenta:

Hitz-lauzkoetan	1.000 ale
Bertsozkoetan	750 ale

Zenbait aldiz bakarrik, liburu batek edo bestek interes berezi bat duelarik, 2.000 ale sal daitezke. Inglesezko liburuek Cymru-n 500 ale saldu ohi baitituzte (nahiz ingelesez dakitenak 2.700.000 izan), gauza bat ageri da: kimrierazko liburua ez dela beharrek eraginda erosten, eta askotan irakurri gabe gelditu ohi dela apaletan.

Cymru-ko Literatur-Sariek ez diote gaur gaurkoz idazleri bizi-modurik ematen: 1972an, esate baterako, 250/300 esterlinatan zegoen sarien erditsua (alegia, 50.000 pezetatun).

Oraindik ere gaizki ikusia da, galestarren artean, kimrieraz idatziz edo bertako kultur-pizkunde lanen bitartez bizi ahal izatea. Zaharrek, batez ere, itsusi atxematen dute bizipidea eta hizkuntza-eraren lagintza elkarriz lotzea («a feeling that Welsh culture is, always has been, and should remain, close-knit, voluntary, part-time and essentially uncorrupted by the evils of financial inducement»). Zinzinez esan baitaiteke: «nihil novum sub sole»...

Idazle gazteak gero eta gogorkiago agertzen dira zaharren joera «ameslari» horren kontra. Baina oraingo laguntza urria dute: idazleentzako moltsatan 21.000 esterlina eman ziren 1972-1973an (lau bat miloi pezeta). Ned Thomas-ek, esate baterako, ingelesezko literatura (!) azaltzen du Aberistwyth-en.

Idazlanak, bestalde, ez dira nasaiki ordainduak. Liburuaren prestatzaeran, esate baterako, hauxe zen (1972) lantsaria: 1.000 hitzen prestatzaera, 2 esterlina; egiten baitu: hitzak, 0,40 peseta. Liburu arrunt baten prestatzaera, horretara (50.000 hitz) 100 esterlina ematen zizkion egileari (1972). Eta, horrez gainera, salmentaren % 10 gehiago, liburua saldu ala emanak («the author receives 10% royalty on every copy sold»).

Aldizkariek, berriz, badute gaur, gobernuaren aldetik, laguntza apur bat: 13.000 esterlina (1972-1973); hau da, bi miloi t'ardi pezeta. Bederatzi astekari dauzenez gero Cymru-n, kontua erraza da.

Gotik jota ere, galestarretan bostetik batek bakarrik irakurzen du gaur kimrierazko aldizkaririk; zeren-eta bederatzitik astekariorik, elkarturik, 50.000 ale saltzen baitituzte astero (1973). Euskal Herrian irakur-malla hori bera lortzen ote dute gure aldizkariek? Ez dut uste.

Irakurleek, eta idazleek bereziki, dato hauetaz pentsatzea nahi nuke. Baita, bereziki, euskal kultura lagundua nahi omen duten horiek gutxi berri hauek zehazki jakin ezazte.

Itsumustuka ibili beharrik ez dago ta.

LARRESORO



NORK KUKURRUKU!!!

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR'ek

sukaldian

HITZALDIAK

Durango Udaletxean egin zen batzarreaz hasi zen X. Liburu eta Disko Azoka. Haundikiro eman zitzaion hasera. Franzisko Amorrortu, Durango alkatea; Jose Inazio Alberdi, Gerediaga Elkartearen lehendakaria; Augusto Unzeta, Bizkaiko Diputazioaren buru-ordekoa; Olaizola, Gipuzkoako Diputazioaren ordezkaria; Luis Martinez Garnica, Bizkaiko «Información y Turismo»ko ordezkaria; A. Villasante, euskaltzainburua; Nikolas Alzola eta abar ziren mahai inguruan.

Alkateak hitzegin zuen lehen-bizi. Politikaren eta ekonomiaten aurrerakuntza kulturari oinarritzen zela esan zuen. Eta Liburu eta Disko Azoka honek bultzada handia eman behar ziola euskal kulturagintzari.

Gerediagarren izeneko hitzaldia Nikolas Alzolak egin zuen. Euskal kulturagintza sustrai zaharretatik bide berrietara jo behar zuela adierazi zuen. Geure benetako baloreak eta geure burua inori saldu barik; aurrera bai, baina katea eten edo apurtu barik.

Ondoren izako «Gerediaga Sarien» berri eman zuen. Eskolatan euskara sar zezatela agintari-erri eskatuz amaitu zuen bere hitzaldia.

A. Villasante ere Nikolas Alzolarekin biderei jarraitu zitzaion.



Beobide eta Olaizola

Legeak eskolatan euskara sartzeko aukera jartzen zuenez gero, lege horretaz baliatu egin behar zela adierazi zuen. Eskolan sarreerarik ez duen hizkuntza hil egiten da. Herriaren arima hilko litzateke. Horretaz ardura zitezela eskatu zien agintariari.

Juan Ramon Urkijo, «Real Sociedad de Amigos del País»eko lehendakariaren ondoren Luis Martinez Garnica, «Información y Turismo»ko delegadua mintzatu zen. Euskal Liburu eta Disko Azokaren eta euskal kulturagintzaren alde mintzatu zen.

SARIAK


Euskarazko eta erdarazko liburak saritu ohi dira.

Euskarazkoetan lehen sari nagusia SAIOKA 2 eta SAIOKA 3 eskola liburuei eman zitzaion. Liburu hauen egile IKER argitaldaria dugu.

Aipamenak:

Prosan, Joxe Ramon Erauskinen ALEN GARAIARI. AUSPOA Liburutegiak argitaratu du.

Poesian, Zulaikaren ADANEN POEMA AMAIGABEARI. KRISEILU argitaldaria argitaratu du.



Iker-lanean, SIADECOREN GOI-HERRI BAILARA INDUSTRI-GINTZA BIDEAN deitu liburuarri. GEROK argitaratu zuen.

Saiakeran, Andoni Iralaren BAT BITAN BANATZEN DA liburuarri. ETORek argitaratu zuen.

Pedagogian, ALFABETATZEN liburuarri. CINSÄK argitaratu.

—oOo—

Erdarazkoetan lehen sari nagusia Pierre Narbaitzen LE MATIN BASQUE liburuarri eman zitzaion.

Aipamenak:

Iker-lanean, Diego Perez de Arriucearen LA HERMANDAD DE IRURAZAI liburuarri. Gasteizko Aurrezki Kutxak argitaratu.

Saiakeran, Caro Barojaren INTRODUCCION A LA VIDA SOCIO-ECONOMICA DEL PAIS VASCO liburuarri.

Literaturan, Martin Ugalderen LAS BRUJAS DE SORJIN liburuarri. AXULAREk argitaratu.

Sari berezia Arabako Diputazioak agertu duen Ulibarriren Gutun Liburuari opa izan zitzaion.

Epa-mahaiko: Abel Muniategi, Mikel Lasa eta Endrike Knörr izan ziren. Idazkari, berriz, Gerediaga Elkarte Jose Inazio Bilbao izan zen.

ARGITALDARIEN BATZARREA

Etor. Gordailu, Herri Gogoa, Ediciones Vascas, Jakin, Kriseilu, Auspoa, Ares, San Miguel eta beste bakarren bat bakarrik agertu ziren azaroaren lean,

arratsaldeko 6etan egin zen batzarra.

Besteek zergatik ez zuten parte hartu?

Urtero bezala batzarre hau erdaraz egin zen. Argitaldierik euskaraz dakien ordezkaria bidaltzeko garaia badelakotan gara.

Gerediaga sarien eraketa eztabaidatu zen, besteak beste. Batzarre honetako xehetasunak hurrengo batean emango ditugu sakonago eta zabalago.

AZOKAN BARRENA

Jende asko ibili da azoka honetan. Larunbatean eta igandean, bietan ibili da jendea lodi. Argitaldieri askok parte hartu du. Ikusmiran eta erosten zebilen jendea ere ugari izan da.


Saltzaileari sinetsi nahi baldin badiogu, liburu eta disko asko saldu da aurten. Zenbait saltzaile liburu eta diskorik gabe geratu zen.

IRAKUR, ERDERISMOS, EUSKARA BATUA ZERTAN DEN eta abarrek arrakasta handia izan zuten haseratik. Ipui liburuxkak ere asko saltzen ziren kontua entzun genuen.

Baina honetaz ezin dugu xehetasun haundiegirik eman. Saltzaileengandik egia garbirik jakitea baita izaten da. Azoketako saltzailea zuhurra eta zomorroa izan ohi da. Zenbaitek esanari beroarena kendu behar izaten zio, beste zenbaitenari, berriz, hotzarena.

Dena den irakurlearen eta eroslearen joerak ezagutzea beharrezkoa litzateke. Argitaldieriek esan beharko ligukete hori. Ea, bada, datorren urtereko zenbait xehetasun jakiten dugun!

IRASTORTZA



Zabala, Uztapide Atxaga, Torrealdai